



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Bermeoko Udala

Bermeoko Udaleko Idazkari lanpostua bitartekotasunean hornitzeko eta lan poltsa eratzeko hautaketa prozesua.

Iragarkia, Bermeoko Udalarena, Bermeoko Udaleko idazkari lanpostua bitartekotasunean hornitzeko eta lan poltsa eratzeko hautaketa prozesua arautuko duten oinarriak eta deialdia.

2025eko uztailaren 5eko 3980 zenbakidun Alkatetzaren Dekretu bidez honakoa xedatu da:

Lehenengoa: Bermeoko Udaleko idazkari lanpostua bitartekotasunean hornitzeko eta lan poltsa eratzeko hautaketa prozesua arautuko duten oinarriak (I. eranskina) eta deialdia onartzea.

Bermeon, 2025eko uztailaren 15ean. — Alkatea, Nadia Nemeh Shomaly

**BERMEOKO UDALEKO IDAZKARI LANPOSTUA BITARTEKOTASUNEAN HORNITZEKO
HAUTAKETA PROZEDURAREN OINARRIAK****1. Lan poltsa**

Deialdi honen helburua da Bermeoko udaleko idazkari lanpostua bitartekotasunean hornitzea, txanda irekian eta lehiaketa-oposizioaren sistema bidez.

Lanpostua estatuko gaikuntza duten funtzionarioen eskalakoa, idazkaritza azpi-eskalakoa eta A1 azpitaldekoa da, eta 4. hizkuntza eskakizuna dauka.

Lanpostuan egiteko funtzio nagusiak Toki Administrazioetako Estatuko Gaikuntza duten funtzionarioen araubide juridikoa arautzen dituen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 2. artikulutik 5. artikulura ezarritakoak izango dira, udalaren antolakuntzari dagokionez.

Hautaketa prozedura honen bidez lortutako emaitzen ondorioz, prozesua gaingitu duten pertsonekin, gehiengo puntuaziotik gutxiengora ordenatuta, bi mailako lan poltsak eratuko dira:

- Oposizio-fasea gaingitu eta 4. Hizkuntza Eskakizuna egiaztatu dutenek.
- Oposizio-fasea gaingitu eta 3. Hizkuntza Eskakizuna egiaztatu dutenek.

2. Legedia aplikagarria

Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren testuategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua.

Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legea.

Estatutako gaikuntza duten toki administrazioetako funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen 128/2018 Errege Dekretua.

Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioetan euskararen erabilera arautu duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua.

Estatuko Administrazio Orokorren zerbitzura dagoen langileria sartzea, eta Estatuko Administrazio Orokorren Funtzionario zibilen lanpostuek hornitu eta horien Lanbideak sustatzeko, martxoaren 10eko 364/1995 Dekretua.

Toki Administrazioen hautaketa prozeduren arauak onartzen dituen ekainaren 7ko 896/1991 Errege Dekretua.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.

Apirilaren 18ko 781/1986 Legea.

Administrazio Publikoen Administrazio prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legea.

Sektore Publikoaren Araubide juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legea.

3. Betebehar zehatzak

Espainiako nazionalitatea izatea, gaikuntza nazionala duten toki-administrazioetako funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 19. artikuluan ezarritakoaren arabera.

16 urte beteta izatea, beste adin muga bereziren bat eskatzen den prozesuen kalte barik, eta edozein kasuan, nahitaezko erretirorako gehienezko adina ez gaingitzea.

A1 azpitaldean sailkatutako kidego edo eskaletan laneratzeko beharrezkoa den unibertsitate titulazioa izatea, urriaren 30eko 5/2015 Legegintza Errege Dekretuak onartutako Enplegatu publikoaren oinarriko estatutuaren legearen testuateginean aurreikusitakoari jarraituz.

Lan poltsan sartu ahal izateko 4. Hizkuntza Eskakizuna izan beharko da.

Dena den, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 43.2 artikulua arabera, lan poltsa eratuko da 3. Hizkuntza Eskakizuna daukaten hautagaiekin ere, 7. oinarrian jasotako baldintzetan.



Hizkuntza Eskakizunaren baldintza hau azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuak (Euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena) ezarritako ziurtagiriak aurkeztuz kreditatu beharko da.

Halaber, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan ezarritakoaren arabera, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartu eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuetsiko dira.

Tasak: Bermeoko Udalaren indarreko ordenantza fiskalak ezarritako azterketa-eskubideen tasa ordaindu izana, eskabideak aurkezteko epearen barruan.

Lanpostuko zereginak normaltasunez egitea eragotziko duen gaixotasunik edo akats fisikorik zein psikikorik ez izatea. Baldintza hori betetzen dela Udaleko osasun zaintza zerbitzuak erabakiko du, komenigarri jotzen dituen azterketak aurretik eginda.

Diziplinako espediente bidez edozein Administrazio Publikoko zerbitzutik baztertua ez izana, edota inhabilitazio absoluturik edo berezirik ez izatea enplegu eta kargu publikoetan aritzeko.

Oinarri honetan ezarritako baldintza guztiak bete beharko dira eskariak aurkezteko epea bukatzen denean.

4. Azterketa-eskubideak

20,00 eurokoak izango dira, Agiriak emateagatik ordaindu beharreko arautzen duen Udal Ordenantza fiskalaren arabera.

Lanpostuetarako deialdietan azterketara aurkeztu ahal izateko zeintzuk baldintzak bete behar diren guztiz zehaztuta dagoen ezkerro eta izena ematean tasa sortzen denez, aurkeztzen denak betetzen dituela ulertu behar da eta izena ematean tasa sortzen denez gero, Erregistro Orokorrean eskaria aurkeztzen den unean tasa ordaindu izanaren justifikazioa ere aurkeztu beharko da. Ostantzean eskaria ez da kontutan edukiko eta deialditik kanpo geratuko da hautagaia.

Behin izena emanda eta ordainduta, deialdiaren baldintzak betetzen ez dituelako azterketara ezin badu aurkeztu edo aurkeztera uko egiten badu hautagaiak, ordaindutako tasa ez da itzuliko.

Kopuru horren ordainketa modu hauetan egin daiteke:

- Ordainketa-pasabidearen bitartez, Bermeoko Udalaren web orriko lotura honetan: http://bermeo.eus/ordainketak_online.html.
- Txartelaz, arreta zuzeneko berhaz bulegoan: Ertzilla kalea, 6-8.
- Dirutan, diru-bilketako bulegoan: Intxausti kalea, 2.
- Banketxeetan.

5. Eskabideak

Eskariak eredu ofizialean egin beharko dira. Eskari ofiziala helbide honetan lor daiteke:

- Euskeraz: http://www.bermeo.eus/fileadmin/bermeokoudala/doc_bermeo/datu_okorak/24_E.10-23_OPOSAKETAK.pdf.
- Gazteleraz: http://www.bermeo.eus/fileadmin/bermeokoudala/doc_bermeo/Inprimakiak/24_G.10-23_OPOSAKETAK.pdf.

Eskariak aurkezteko bideak:

- Egoitza elektronikoa: <https://egoitza.bermeokoudala.eus/>.
- Arreta zuzeneko berhaz bulegoa: Ertzilla 6-8.
- 39/2015 Legeko 16.4 artikulua zehaztutako bideak.

Eskabidearekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- NAN agiria.
- Deialdian parte hartzeko eskatutako titulazioa.



- Egiaztatutako Hizkuntza Eskakizunaren agiria.
- Tasak ordaindu izanaren egiaztatzea.
- Lehiaketa faserako alegatutako merezimenduen zerrenda, eta horiek egiaztatzeko agirien fotokopia. Ezingo dira baloratu eskabideak aurkezteko epearen barruan alegatu eta justifikatu ez diren merezimenduak.

Esperientzia egiaztatzeko, zerbitzuak zein administrazioetan eman diren egiaztariak aurkeztu beharko dira, kontratuaren iraupena eta betetako lanpostua adierazita. Eskabideak aurkezteko epearen amaiera datara arte zenbatuko dira.

Eskabidea, hamar (10) egun baliodunen epean aurkeztu behar da, deialdiaren iragarria Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Ondorio horietarako, zapatuak, domekak eta jaiegunak ez dira egun balioduntzat joko.

Administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan xedatutakoaren arabera, instantzietan akatsak egonez gero, 5 egun balioduneko epea emango zaie interesdunei akats hori zuzentzeko, eta jakinaraziko zaie zuzentzen ez badute, eskabidea ezetsi egingo dela.

Probak egiteko denbora edo bitarteko egokitzapenak behar dituzten hautagaiek, horren berri emango dute eskaeran. Epaimahai Kalifikatzaileak beharrezko egokitzapenak egingo ditu hautapen probak egiteko, betiere, horrekin edukia aldatzen ez bada edo eskatzekoa den gaitasun maila gutxitzen ez bada. Halaber, alegatutako inguruabarrak egiaztatzeko agiriak eskatu ahal izango ditu.

Hautaketa-prozesuan parte hartzeak esan nahi du baimena ematen dela hautaketa-prozesuaren edozein unetan Udalaren Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuko pertsonal sanitarioak beharrezkoa den gaitasun funtzionala ziurtatzeko egokitzen jotzen di-tuen kontrol edo azterketak egiteko.

6. Izangaiak onartzea

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ostean, Bermeoko Udaleko korporazioko presidenteak deialdian onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrenda ontzat emango du, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta udalaren iragarki oholean ipiniko da. Modu berean, adieraziko da 5 egun balioduneko epean hautagaiek egoki deritzen erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituztela, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan adierazitakoaren arabera.

Erreklamazioak aurkezteko epea amaitu eta horiek ebatzi ostean, udaleko korporazioko presidenteak deialdian onartutako eta baztertutako hautagaien behin-betiko zerrenda ontzat emango du, eta erakundearen iragarki-oholean ipiniko da. Behin-behineko zerrenda behin betikotzat joko da, baldin eta erreklamaziorik ez badago.

Egindako erreklamazioei buruzko ebazpenaren aurka berraztertzeko errekurtsua jarri daiteke alkatearen aurrean, hilabeteko epean, zerrendak argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

7. Epaimahaia

Hautaketa-prozesuko epaimahaia xedapen hauetako artikuluetan ezarritakoaren arabera eratuko da: Enplegu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko testu bateratua onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu araugilearen 60. artikulua, ekainaren 7ko 896/1991 Errege Dekretuko 4. artikulua, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legeko 81. artikulua eta martxoaren 16ko 1/2023 Legegitzailearen Dekretua, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duenaren 21.1.b. artikulua.

Epaimahaia mahaiburuak, idazkariak eta deialdian ezarritako kopuruaren araberrakokideek osatuko dute eta, gutxienez, bost kide egingo dira.



Epaimahaia osatuko dutenak, gehienbat, teknikariak izango dira eta botoa emateko eskubidea duten kide guztiek deialdian parte hartzeko eskatu den titulu edo maila akademiko berbera edo goragokoa izan behar dute, eta epaimahai bakoitzaren kideen erdiek gutxienez, hautaprobetako jakintza-arlo bereko titulazioa edo espezializazioa izan behar dute.

Oinarri hauetan zehazten ez den zerbaite gertatuz gero, epaimahaiak hautaketa-prozesua behar bezala garatzeko eta dagozkion eginkizunak betetzeko hartu beharreko erabakiak hartuko ditu, eta oinarri hauek aplikatzean sortzen diren zalantza guztiak ebartziko ditu, besteak beste, oposizio fasean aurreikusten diren ariketen hurrenkera. Epaimahaiaren erabakien aurka gora jotzeko errekurtsua jar daiteke alkate-udalburuaren aurrean; horretarako epea ebazpenean bertan ezarriko da eta iragarki-taulan argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatu behar da.

Epaimahaikideek, batzar bakoitzeko, Aurrekontua Betearazteko Oinarrietan aurreikusitako ordainsariak eskuratzeko eskubidea izango dute.

8. Hautaketa-prozedura

Hautaketa prozedura lehiaketa-oposizioa izango da.

A) OPOSAKETA FASEA

Deialdi honetako ariketa Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizial bietan egin ahal izango da, eta hautagaiak eskabidean adierazi beharko du oposizio-faseko ariketa zein hizkuntzatan egin nahi duen.

Oposizio-fasean ariketa bakarra egingo da, derrigorrezkoa eta baztertzalea izango dena.

Ariketa bakarra (teorikoa): Epaimahaiak ezarritako gehienezko denboran, oinarri hauei dagokien gai-zerrendaren edukiei buruzko erantzun anitzeko galdetegari erantzutea. Epaimahaiak zehaztuko du galdera kopurua, erantzun anitz kopurua eta ariketa egiteko denbora.

30 punturekin baloratuko da froga hau.

Azterketa deia: Azterketatarako deialdiak, Bermeoko Udalaren web gunean ipintzeaz gain, posta elektronikoko bidez jakinaraziko zaizkie hautagaiei, eskaera-orrian zehaztutako helbidera elektronikora egingo dena.

Izangaia deitua izan den unean ez bada ariketara aurkezten, automatikoki galduko du ariketan parte hartzeko eskubidea eta, horren ondorioz, hautaketa prozesutik kanpo geratuko da.

B) LEHIAKETA FASEA

Lehiaketa fasean, epaimahaiak hurrengo merezimenduak baloratuko ditu, eskabi-dearekin batera alegatuta eta behar bezala egiaztatuta badaude:

- a) Sarrera kategoriako idazkari edo idazkari-kontuhartzailerik gisa egindako zerbitzuengatik gehienez ere 10 puntu, urteko puntu 1ekin (edo sei hilabete baino gehiagoko epealdi bakoitzeko) eta gehienez ere 10 urte kontuan hartuko dira.
- b) Administrazio publikoan, administrazio orokorreko teknikariaren lanpostuan emandako zerbitzuengatik (A taldea, titulazioko A1 azpitaldea), gehienez ere 5 puntu, eta 1 puntu urteko (edo sei hilabete baino gehiagoko aldi bakoitzeko), eta gehienez ere 5 urteko epea kontuan hartuko da.

9. Lehiaketa-Oposizioaren kalifikazioa eta lan poltsaren hurrenkera finkatzea

Probaren emaitzak Bermeoko web orrialdean argitaratuko dira eta, gutxienez 5 eguneko epea ezarriko da azterketak berrikusi eta erreklamazioak aurkezteko.

Erreklamazioak Epaimahairen Presidentetzari zuzenduta egongo dira idatziz eta Erregistro Orokorrean entregatuko dira edo Epaimahaiko Idazkariari emango zaizkio, eta azken horrek ofizialki erregistratu beharko ditu.



Erreklamazio epea amaitu ondoren, behin betiko kalifikazioen zerrenda argitaratuko da. Ondoren, eta lehiaketa fasea amaitu ostean, Epaimahaiak proba gainditu dituzten hautagaien zerrenda argitaratuko du, lehiaketa-oposaketa fasean guztira lortutako puntuazioaren arabera hurrenkeran.

Hautaketa prozedura gainditu duten pertsonen lortutako puntuazioen ondorioz zehaztuko da hurrenkera, baina lehentasuna izango dute Oposizio-fasea gainditu eta 4. Hizkuntza Eskakizuna egiaztatu dutenek. Jarraian, Oposizio-fasea gainditu eta 3. Hizkuntza Eskakizuna egiaztatu dutenak joango dira.

Behin-behineko kalifikazio eta hurrenkeraren aurka dagozkion alegazio eta erreklamazioak aurkeztu ahal izango dira bost (5) laneguneko epean. Epe horretan, alegazio edo erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, behin-behineko proposamena behin betikotzat joko da.

Ostera, erreklamaziorik edo alegaziorik aurkeztzen bada, horiek ebatziko dira eta epaimahaiak behin betiko kalifikazioak eta behin betiko hurrenkera onartuko du eta argitaratuko du Bermeoko Udalaren web gunean. Halaber, Bermeoko Udaleko web gunean argitaratuko da lan poltsa eratzeko alkatetzaren ebazpena.

Azken puntuazioan berdinketa gertatuz gero, oposizio fasean puntuazio handiena lortu duena izendatuko da.

10. Aurka egiteko bideak

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 123. eta 124. artikuluen eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1988 Legearen 46. artikularen arabera, oinarri hauen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal zaio hilabeteko epean Alkateari, edo zuzenean aurka egin administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean, hilabete biko epean. Epe hori, kasu bietan ebazpena Bermeoko Udaleko webgunean argitaratzen denean hasiko da.

**GAIAK****I. POLITIKA ETA ADMINISTRAZIO ANTOLAMENDUA**

1. Espainiako 1978ko Konstituzioa. Egitura eta funtsezko edukia. Konstituzioaren erreforma.
2. Funtsezko eskubideak eta betebeharrak. Funtsezko eskubideak babestu eta indargabetzea. Pertsonen funtsezko eskubideen babes juridikzionala.
3. Gorte Nagusiak. Eraketa eta eginkizunak. Ganberen erregulazioa eta funtzionamendua: parlamentu erregelamenduak. Gorte Nagusien menpeko kontrol organoak: Herriaren Defendatzailea eta Kontuen Epaitegia.
4. Gobernuaren Espainiako konstituzio sistemaren. Gobernuaren presidentea. Gobernuaren Legea. Gobernuaren parlamentu kontrola.
5. Botere Judiziala. Justiziaren erregulazio konstituzionala. Botere Judizialaren Lege Organikoa. Mugaketa eta Instalazio Judizialaren Legea. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia: izendapena, antolamendua eta eginkizunak. Espainiako Justizia Administrazioaren antolamendua: agindu juridikzionalak, organo juridikzional motak eta horien eginkizunak.
6. Estatuko lurralde antolamenduko formak. Autonomia erkidegoak: Politika eta administrazio antolamendua. Estatuaren eta autonomia erkidegoen artean eskumenak banatzeko sistema. Estatuaren eta autonomia erkidegoen arteko harremanak. Autonomia erkidegoen finantzaketa.
7. Europar Batasunaren zuzenbidearen iturriak. Batasunaren Zuzenbidearen eta Estatuko Barne Zuzenbideen arteko harremanak; eragin zuzena, primazia, erantzukizuna, subsidiarotasuna, baliokidetasuna eta eraginkortasun printzipioak. Europar Batasunaren erakunde-antolaketa.
8. Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutua: aurrekari historikoak. Atariko titulua. Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenak. Estatutuaren erreforma.

II. ADMINISTRAZIO ZUZENBIDEA: ZATI OROKORRA

9. Herritarra administratu gisa: kontzeptua eta motak. Administrazioaren ahalmena eta kausa aldarazleak. Herritarrek administrazio publikoekiko harremanetan dituzten eskubideak.
10. Administrazio egintza. Kontzeptua. Elementuak. Motak. Betekizunak: motibazioa eta modua. Administrazio egintzen eraginkortasuna: deklarazio autotutoretzaren printzipioa. Baldintzak. Jakinarazpena: edukia, epea eta praktika. Jakinarazpen akastuna. Argitalpena. Beste administrazio baten onarpena. Eraginkortasunaren berandutzea eta atzeraeragina.
11. Administrazio egintzaren baliogabetasuna. Erabateko deuseztasuna eta deuseztagarritasuna. Administrazio egintzaren kontserbazio printzipioa. Administrazioak berak egintzak eta xedapenak berrikustea: inguruabarrak. Deuseztasun egintza, prozedura, mugak. Kaltegarritzat aitortzea. Egintzak ezeztatzea. Errakuntza materialak edo egitezkoak zuzentzea.
12. Administrazio prozedurei buruzko xedapen orokorrak eta askotariko prozeduren arauak. Prozeduran dauden interesdun motak. Administrazioaren eskubideak. Prozedurak hastea: motak, zuzenketak eta eskaerak hobetzea. Eskubideak, idazkiak eta jakinarazpenak aurkeztea. Administrazio erregistroak. Terminoak eta epeak: zenbaketa, handitzea eta premiazko izapidetzea. Antolamendua. Instrukzioa: interesdunen esku-hartzea, frogak eta txostenak.
13. Prozedura amaitzea. Erabakitzearen derrigortasuna. Berariazko ebazpenaren edukia: kongruentziaren eta hasierako egoera ez larriagotzearen printzipioak. Itundutako amaiera. Berariazko ebazpenik ez egotea: administrazio isiltasunaren araubidea. Atzera egitea eta uko egitea. Iraungitzea.



14. Hertsapen administratiboa: autotutoretza betearazlearen printzipioa. Administrazio egintzen nahitaezko betearazpena: bitartekoak eta erabilpen printzipioak. Zuzeneko administrazio hertsapena. Egitatezko bidea.

15. Administrazio errekursoak: printzipio orokorrak. Administrazio errekurtoa eragin dezaketen egintzak. Administrazio errekursoak izapidetzeko arau orokorrak. Errekurto motak. Beste bide batzuetatik (zibiletik eta lan-esparrutik) jo aurreko administrazioko erreklamazioak. Administrazio errekursoak ordezkatzeko prozedurak: kontziliazioa, bitartekaritza eta arbitrajea.

16. 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore publikoko araubide juridikoarena. Xedapen orokorrak, administrazio publikoetako organoak: administrazio organoak, esku-mena, administrazio publikoen kide anitzeko organoak (funtzionamendua) eta abstentzioa eta ezestea.

17. 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore publikoaren araubide juridikoarena (sektore publikoaren funtzionamendu elektronikoa eta hitzarmenak).

18. Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa. Nolakotasuna, hedapena eta mugak. Jurisdikzioaren organoak eta horien eskumenak. Alderdiak: legitimazioa. Administrazioarekiko auzi errekursoaren xedea.

19. Sektore publikoaren kontratuak: mugak. Sektore publikoaren kontratazioko printzipio orokorrak: arrazionaltasuna, itunak egiteko askatasuna eta gutxieneko edukia, perfektzioa eta forma, informazioa, baliaezintasunaren araubidea eta kontratazio arloko erabakiak berrikustea. 20. Sektore publikoaren kontratuak alderdiak. Kontratazio organoa. Enpresaria: ahala, debekuak, gaitasuna eta sailkapena.

20. Administrazio publikoek prestatzen dituzten kontratuak. Kontratazio espedienteen motak. Kontratista aukeratzea: prozedurak, moduak eta adjudikazio irizpideak. Bermeak. Kontratua perfektzionatu eta formalizatzea. Kontratuen baliogabetasuna. Kontratazioaren arrazionalizazio teknika. Esparru akordioak. Kontratazioko sistema dinami-koak. Kontratazio Zentralak.

21. Administrazio kontratuak betearazi eta aldatzea. Administrazioaren eskumenak. Prezioak berrikustea. Administrazio kontratuak azkentzea. Kontratuak lagatzea eta azpi-kontratazioa.

22. Obra kontratuak. Prestatzeko administrazio jarduketak. Adjudikatzeko moduak. Formalizatzea. Ondorioak. Azkentzea. Obra kontratua eta azpikontratua lagatzea. Administrazioak berak obrak betearaztea.

23. Horniduren kontratua: araubide juridikoa. Betearazpena, aldaketa, betetzea eta ebazpena. Zerbitzu kontratua: araubide juridikoa. Betearazpena, aldaketa, betetzea eta ebazpena.

24. Nahitaezko desjabetzeak. Subjektuak, objektua eta kausa. Prozedura orokorra. Berme jurisdikzionalak. Desjabetze berrikuspena. Premiazko izapidetzeak. Prozedura bereziak.

25. Administrazio publikoen erantzukizuna: nolakotasunak. Erantzukizunaren aurrebaldintzak. Ordain daitezkeen kalteak. Administrazio ekintza eta prozedura erantzukizunaren arloan. Administrazio publikoen zerbitzura dauden aginteen eta langileen ondare erantzukizuna.

26. Administrazio publikoen dirulaguntzen alorreko jarduera: Dirulaguntzaren kontzeptua eta dirulaguntza publikoen xedapen komunak. Dirulaguntza motak. Dirulaguntzen prozedura eta kudeaketa. Dirulaguntzak itzultzea. Finantza kontrola. Dirulaguntzen alorreko administrazio arau-haustea eta zehapenak.

27. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legea eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legea.

28. Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigorrezko Ahalmenari buruzko martxoaren 16ko 1/2023 Legea.



29. Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa. Datuen babesari buruzko printzipioak. Pertsonen eskubideak. Tratamenduaren arduraduna eta karguduna.

III. TOKIKO ADMINISTRAZIO ZUZENBIDEA

30. Toki araubidea: esanahia eta bilakaera historikoa. Toki administrazioa Konstituzioan. Toki autonomiako Europako gutuna. Toki autonomiaren printzipioa: esanahia, edukia eta mugak.

31. Tokiko zuzenbidearen iturrien sistema. Toki araubideari buruzko estatuko oinarritzko legeria eta autonomia erkidegoetakoa. Lege sektorialek toki administrazioan duten eragina. Toki erakundeek araudiak egiteko duten ahalaz: erregelamenduak eta ordenantzak. Egiteko prozedura. Erregelamendu organikoa. Bandoak.

32. Udalerrria: kontzeptua eta elementuak. Udal mugartea: barne antolaketaaren arazoa. Udalerrrien mugak aldatzea. Oinarritzko legeria eta autonomia erkidegoetakoa. Udalerrriko biztanleria. Biztanle errolda. Biztanleen estatutua. Atzerritarren eskubideak.

33. Udal antolamendua. Araubide erkideko udalerrriak. Beharrezko organoak: alkatea, alkate-ordea, osoko bilkura eta tokiko gobernu batzarra. Organo osagarriak: informazio batzordeak eta bestelako organoak. Biztanleria askoko udalerrriak: beren araubide organiko funtzionalaren berezitasunak. Talde politikoak. Herritarren partaidetza udal kudeaketan. Kontseilu irekia. Bestelako araubide bereziak.

34. Udal eskumenak: zehaztapen sistema. Eskumen propioak, partekatuak eta ordezkatuak. Gutxieneko zerbitzuak. Zerbitzu erreserba.

35. Tokiko hauteskunde sistema. Ezirakurgarritasun eta ezgaitasun kausak. Zentsura mozioa toki eremuan. Hauteskunde auzietako errekurtsioa. Toki korporazioen hautazko kideen estatutua.

36. Toki gobernuko organoen bilkuren eta erabakien araubidea. Aktak, ziurtagiriak, erabakien komunikazioak, jakinarazpenak eta argitalpenak. Agirien erregistroa.

37. Toki erakundeen jarduera moduak. Toki administrazioen esku-hartzea jarduera pribatuan. Lizentziak eta administrazio baimenak: motak. Tokiko sustapen jarduera.

38. Toki erakundeek araudiak egiteko duten ahalmena. Toki erakundeen zehapen ahalaz.

39. Toki erakundeen ekonomi ekimen publikoa eta zerbitzu erreserba. Zerbitzu publikoa toki erakundeetan. Kudeaketa moduak. Aipamen berezia zerbitzuen emakidari eta tokiko enpresa publikoari. Partzuergoa.

40. Toki erakundeen ondasunak. Motak. Jabari publikoko lurzoruak. Ondare ondasunak. Toki erakundeen eskumenak eta ahalak beren ondasunekin lotuta. Herri ondasunak. Inbentarioa. Herri baso komunak.

41. 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Toki Erakundeei buruzkoa: legearen xedea eta printzipioak. Udalerrria eta gainerako euskal toki erakundeak.

42. 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Toki Erakundeei buruzkoa: udal eskumenak. Udal antolakuntza eta funtzionamendua.

43. 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Toki Erakundeei buruzkoa: Gobernu irekia. Gardentasuna, datu irekiak eta herritarren parte hartzea.

44. Estatuko eta autonomia erkidegoko eskumenak lurzoruaren eta hirigintzaren arloan. 7/2015 Legegintza Errege Dekretua (Lurzoruaren eta hiri birgaitzearen legearen testu bategina). Edukiari buruzko ideia orokorra. Lurzoruaren jabetza estatutu juridikoa. Lurzoruaren oinarritzko egoerak: zentzua eta intzidentzia praktikoa, lurzoruaren sailkapenarekin duen harremana. Balorazioak.

45. 2/2006 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa: Lurzoruaren sailkapen eta kalifikazioa. Lurzoruaren jabetzaren araubidea eta 7/2015 Legegintza Errege Dekretuan araututako lurzoruaren jabetzaren estatutuarekin hitzarmenak.



46. 2/2006 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa: Hirigintza antolamendua eta plangintza. Hirigintza antolamendua eta lurraldearen antolamenduarekin duen lotura. Egiturazko hirigintza antolamendua eta antolamendu xehatua. Hirigintza antolamendurako planak eta tresnak. Zenbatekoen eta estandarren inguruko ideia orokorra.

47. 2/2006 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa: Hirigintza antolamenduaren egikaritzea. Egikaritze jardueraren edukia eta garapena. Hirigintza aurrekontuak. Eremuak eta jarduera motak. Hirigintza jarduketako programak: xedea, eremua eta edukia. Egikaritze unitateak. Jarduketa sistemak: sistema bakoitzaren oinarritzko azalpena.

48. 2/2006 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa: Kontserbatzeko eta zaharberritzeko betebeharra. Aurria. Beteazteko aginduak. Hirigintza lizentziak: atxikitako egintzak, izaera, araubide juridikoa, emateko prozedura eta isiltasun positiboa. Jarduera klandestinoak, legeztatzeko araubidea. Hirigintza antolamenduaren eraberritzea.

49. Enplegatu publikoak: Motak eta araubide juridikoa. Langileak antolatzekeo tresnak: plantillak eta lanpostuen zerrendak. Giza baliabideen tresna arautzaileak: enpleguko eskaintza, enplegu planak eta bestelako arrazionalizazio sistemak.

50. Enplegu publikoak eskuratzea: printzipio arautzaileak. Betekizunak. Hautaketa sistemak. Enplegatu publikoaren izaera azkentzea. Lanpostuak hornitzeko araubidea: hornidura sistemak. Lan kontratua. Tokiko funtzionarioen administrazio egoerak.

51. Estatutu harremana. Funtzionario publikoen eskubideak. Banakako eskubideak. Erreferentzia berezia administrazio karrerari eta ordainsariei. Gizarte Segurantzako araubidea. Egikaritze kolektiboko eskubideak. Sindikatuak eta ordezkariak. Grebarako eskubidea. Negoziazio kolektiboa.

52. Funtzionario publikoen betebeharrak. Diziiplina araubidea. Erantzukizun zibila, penala eta ondarekoaren araubidea. Batera ezintasunen araubidea.

53. Gaikuntza nazionalako funtzionarioen araubide juridikoa. Eginkizunak. Gorteko lanpostuak. Lanpostuen hornidura, egoerak eta zehapen araubidea.

54. Lan zuzenbidea. Izaera eta ezaugarriak. Lan antolamenduaren iturriak: konstituzionalak, estatuko legeria eta autonomia erkidegoko araudia.

55. Laneko Hitzarmen Kolektiboak: eraginkortasuna, izaera juridikoa eta negoziazio unitateak. Konkurrentzia, edukia, indarraldia eta legitimazioa. Batzorde negoziatzaileak.

56. Lan kontratua: zatiak. Kontratatzeko gaitasuna. Edukia. Langilearen eta enpresariaren prestazioak. 56. Lan kontratuaren modalitateak: iraupen jakinekoak, prestakuntzakoak, lanaldi partzialekoak, txandakoak, aldizkako lan finkoetarako eta beste modalitate batzuetarako. Enplegua sustatzeko neurriak araubide orokorrean eta araubide berezian.

IV. OGASUN PUBLIKOA ETA ZERGA ZUZENBIDEA

57. Toki Erakundearen aurrekontu orokorra Aurrekontu egitura. Sortzea eta onestea: bereziki aipatzea aurrekontuaren betearazpen oinarriak. Aurrekontuak luzatzea.

58. Gastuen aurrekontuaren kredituak: mugaketa, egoera eta lotura juridikoko mailak. Kreditu aldaketak: kontzeptua, motak, finantzaketa eta izapidetzea.

59. Gastuen eta diru-sarreraren aurrekontua betearaztea: faseak. Justifikatu beharrek ordainketak. Kutxa finkoko aurrerakinak. Urte anitzeko gastuak. Gastuen behar baino lehenagoko izapidetzea. Gastuen proiektuak. Eraginpeko finantzaketa duten gastuak: erreferentzia berezia finantzaketa desbideratzei.

60. Aurrekontuaren likidazioa. Izapidetzea. Kreditu-gerakinak. Aurrekontuaren emaitza. Diruzaintzako gerakina.

61. Tokiko ogasunen errekurtsioak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunen abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren esparruan.



62. Zerga arloan toki erakundeek duten araubidezko ahala: zerga ordenantzen edukia, zergak ezarri eta agintzeko ekintzen kontra egiteko araubidea eta izapidetzea. Zerga alorrekoak ez diren baliabideak ezartzea.

63. Toki errekurtsuak kudeatu eta likidatzea. Toki Ogasunen arloan agindutako kudeaketa egintzen administrazio berrikuspena.